# EUSKALERRIKO GARRAIOAK

**Barroetatar Klaudiok**
**Euskerazaleak Alkartean 2015.Azaroko 26n Euskal astean izandako itzaldia, labur-laburrean.**



## MOVEUSKADI.

Euskadiko garraiolarientzako eginbide-planoa erakusten dauan orria da. Egunerazten dauz atzeratu diran garraioak eta zakelekoetan entzun daikiez egokituta.

Ona emen Garraio ezagunenak: Alababus, Attg, Bilbobus, Bizkaibus, Eusko Tren, Artxandako Funikularra, La Burundesa, La Union, Metro Bilbao, Renfe, BizkaikoTransbordadorea, Juvisa….

## BIDALARIEN GARRAIOA.

**1- Leorrerako garraio sistema; autobusak...**

Errepide sarea.

Errepide zati erabillienak

Etengabe ari dan sarea.

**2- Burdin bide sarea; Trenak...**

Espaniako eta Frantziako burdinbide zabalak.

Burdinbide estua.

Lastertasun andirako burdibidea.

**3- Energia banatzeko sareak;**

Olioduktoak.

Gaseoduktoak.

**4- ltsasoko garraioak: Bílboko Portua. Pasaiko Portua. Baionako Portua.**

**5- Aireko garraioa.**

## LURRALDEAREN BALDINTZATZAILLEAK TA BILKABIDE ISTORIKOA.

Euskalerria, Bizkaiko golkoaren ertzean eta Pirinoetako mendiaren tartean egonik, Europako errialdeen arteko igaro leku nagusietako bat da. Lurraldearen orografía goi-be andiko erliebea daukalako kominokazioak zailduten dauz ta asko gastatu da.... Euskalerria istori andiko lurraldea izan da. Ez ainbeste erromatarren denboran mediterraneo aldera jo ebalako. Baña Goi-Arotik aurrera Santiagora doazen bide nagusiak erdi erditik igarotzen dabe Euskalerria. Nafarroa ta Arabako lautadan barrena geienbat.

## ARRIBIDE (KALZADA) NAGUSIAK.

- Leon, Astorga, Briviesca, Zaragoza aldera...Kascante ta Korres.
- Ibilbide nagusia (erromatarrena): Arabako lautada, Agurain, Sakana, Iruñaraño. Iruñetik iparraldera, Orreagan Bordelekin lotzeko.
- lruña, Lizarra, Viana.
- Gares (Puente Larreina), Fiterora ta Aibartik Kaskantera.
- Santiagorako bidea Garesen (Puente Larreinan) batu, Oskabarte, Burgos...
- **Mendabaldeko adarrak: Tours, Garazi, Orreaga, lruña.**
  - * Italia ta Europakoak San Gilesetik.
  - * Oiartzunetik kostaldera Oviedoraño.
  - * Oriatik San Adrián... Arabako lautada (Agurain-Gazteiz), Burgos...





## SALGAI SAREAK.

- Arraña Portuetatik...
- Baztan, Bizkaia, Gipuzkoatik burdiña..
- Nekazaritza, Oiala, Olioa...

   * Gaur egun Euskalerriak daukan errepide sarea geienbat lengo gurdibidetatik dator. Ilustarzoaren pentsamoldetatik (XVIII mendetik). Mesta Portuekin lotzekoak dira.

1753an bukatu zan Iruñea ta Baltierra arteko errepidea Zaragoza ta Madrileraño.

1775an Urduñako bidea.

1789: Gazteiz-Durango-Urkiolatik.
Urte berean Nafarroa ta Gipuzkoa, Betelu ta Azpiroztik barrena, Altsasua-Beasain. Gazteiz-Bibora Barazarretik...

## EUSKALERRIKO LEENENGO BURDI BIDE ZABAL IPARRALDETIK SARTU ZAN.

-Paris-Akize artekoa (1.854)

-Paris-Baiona. Madrid-Paris (1.864)

**TRANBIAK:** Bilbao-Areatza-Durango, Donosti-Errenderi-Tolosa.

Ekimen pribatuen eskuetan:

**FEVE,** Plazaola, lrati, Bidasoa, Vasco-Navarra, Urola.

Ego Euskalerriko tranbia geienak gerra ostean desagertu ziran.

Espaiñiako estatuak RENFE errail tarteko zabalaz iraunazi eban burdin bidea.

